

IBAI PARKEKO ZERBITZUEN KARTAREN JARRAIPENA. 2016

IBAI PARKEAREN GARBIKETA ETA MANTENIMENDUA

1. KONPROMISOA

Parkea garbi dagoela eta mantentze lan orokorrak egiten direla ziurtatzea, horretarako, zaborrak bilduta, eta landareak zaintzeko lanak, zorua zaintzekoak eta beharrezkoak diren beste mantentze-lan batzuk eginda.

Garbiketa eta mantentze orokorreko lan arruntak ezarrita dagoen maiztasunaren arabera egiten dira:

- *Zaborrak astean bitan jasotzen dira, eta bisitari gehien izaten den garaian, martxo eta iraila artean, baita larunbatetan ere.*
- *Abuztuan, ur maila beherena baliatzen da, ibaiaren ibilgua eta ertzak sakon garbitzeko.*
- *Parkea garbitzean, ekaina eta abuztua bitartean, igandeetan, jarduketa berezia egin da. Barnean sartu dira asteburuetan zabalik dauden zerbitzuen garbiketak.*

Zoladura zaintzeko lan hauek egin dira:

- *Morea-Zizur Nagusiko instalazioak hobetu dira.*
- *Sastrakak kendu dira eta Ventorrillo esaten zaion eremua itxi da Arren.*
- *Zoladura berriz jarri da Ollokin.*

Urtean zehar egindako beste jarduketa batzuk hauek izan dira:

- *Suteei aurea hartu zaie, Nafarroako Gobernuko Basoen Kudeaketako Departamentuarekin koordinatuta.*
- *Mozketak egin dira eta zuhaitz lehorrak kendu dira segurtasuna bermatzeko.*

Zerbitzuekiko asebetetze edo gogobetetasun maila ezagutzeko inkestarik ez da egin 2016an. Egindako azkenekoan, 2015ekoan, 7,8ko balorazioa eman zieten alderdi horiei, 0 eta 10 arteko eskala batean.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

2. KONPROMISOA

Parkeko altzariak eta dotazioak zaintzea (haurrentzako guneak, seinaleak, komunak, argiak, oinzubiak, iturriak...), etengabe berrikusita, ongi daudela ziurtatzeko edo erabiltzean segurtasunari kalte egiten dion edozein kalte konpontzeko.

Parkeko mantentze lanetan aritzen diren langileek zenbait berrikuste orokor eta etengabe egin dituzte, dotazio berezietarako (haurrentzako jokoak) enpresa espezialistak hiru hilean behin egiten dituzten gain.

Ibai parkeko jolas eremuetako zerbitzuak hobetzen jarraitu da 2015ean, ikusitako premien arabera. Hain zuzen, hauek egin dira:

- *Bizikletetarako zirkuitua egokitu da Arazurin.*
- *Komunak hobetu dira Barañainen eta Txurbindoan (Uharte).*
- *Komun eramangarria kokatu da Uharten, Atondoan.*

Horrez gain, altzariak ohi bezala jarri dira berriro, txakurrak ibiltzeko guneak berrikusi dira, oinzubiak, pintaketa iraingarriak kendu dira eta oinzubietan irrist ez egiteko zerrendak kokatu dira. Burlatako Intxaurdian eta Orikainen ekintza bandalikoak izaten dira, baina azkar egiten zaie aurre.

Zerbitzuekiko asebetetze edo gogobetetasun maila ezagutzeko inkestarik ez da egin 2016an. Egindako azkenekoan, 2015ekoan, 7,5eko balorazioa eman zieten alderdi horiei, 0 eta 10 arteko eskala batean.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

3. KONPROMISOA

Uholdeak gertatzen direnean, haize gogorra dabilenean... gehienez ere bost eguneko epean, egoeraren balorazioa egitea eta ohiz kanpoko jarduketak egiteko ekintza plan bat egitea.

Ez da gertatu uholde garrantzitsurik ez eta nabarmentzeko moduko ekaitzik ere. Eguraldi txarraren ondorioz kalte hartutako arbolak kendu dira Martiketen, Arletan, Barañainen eta Burlatan.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

ONDARE HISTORIKOA ZAINTEA ETA LEHENGORATZEA

4. KONPROMISOA

Ibai parkean dagoen ondare historikoa, hala nola zubiak, errotak eta abar, zaintzeko eta lehengoratzeko jarduketak gauzatzea.

Urtean zehar parkean aurreikusitako dotazio hauek amaitu dira:

- *Dorraburu zubia berritu da, Uharten, Arga ibaian.*
- *San Andres Errotako ubidea garbitu da.*

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

IBAI IBILBIDEI LOTUTAKO LANDAREAK ETA ANIMALIAK BABESTEA

5. KONPROMISOA

Bioingeniaritzako jarduketak egitea (landare material biziakin eraikitze teknika), landatzeak, ereiteak, habiak jartzea... ibai ekosistemen ingurumen kalitatea bermatzeko, babes berezia behar duten habitat berezi-bereziak baitira.

Mantentze lanak egin dira saguzarren habietan eta ikusi da, beste urte batzuen aldean, handitu egin dela haien okupazioa. 17 kaxa gehiago kokatu dira parkeko 4 gune berritan, Arga Beherea eremuan eta Elortz eta Arga ibaiek bat egiten duten tokian.

“Ibai Parkeko faunaren diagnostikoa” azterlana egin da.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

PARKEAREN ETA SENTSIBILIZAZIO ZENTROEN SUSTAPENA ETA DINAMIZAZIOA

6. KONPROMISOA

Ibaiekin edo beste gai batzuekin lotuta –edukiak egoki jotzen direnean–, ibai parkearen inguruan egin beharreko jarduerak sustatzea eta horietan laguntzea:

- **Boluntariora jardunaldiak.**
- **Natura jendarteratzeko eta ingurumen sentsibilizaziorako jardunaldiak.**
- **Jolas eta kirol jardunaldiak.**

2016an, Iruñerriko Mankomunitateak boluntariora jardunaldi hauek koordinatu ditu Ibai Parkearen eremuan:

- *Uharteko eta Atarrabiako auzolana, gazteak aktibatzeo proiektua (Ibai Parkea garbitzea Atarrabian eta Uharten).*
- *Ibaia Begira proiektua Atarrabian. Atarrabiaren idiosinkrasia erakusten duten edukiak dituen horma irudi artistikoa, parte-hartze prozesu batean herritarrek hautatutako irudien bidez.*

Horrez gain, 2016an, 23 jarduera desberdin antolatu dira eta haietan 14.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Kontzertuak, tailerrak... izan dira. Eta 36 ekitaldi askotariko antolatu dira eta ia 15.500 parte-hartzaile izan dituzte.

Zerbitzuekiko asebetetze edo gogobetetasun maila ezagutzeko inkestarik ez da egin 2016an. Egindako azkenekoan, 2015ekoan, 7,5eko balorazioa eman zieten alderdi horiei, 0 eta 10 arteko eskala batean.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

7. KONPROMISOA

Atarrabiako Pilategian eta San Andres Errotan dauden parkearen interpretazio zentroak dinamizatzea eta haietan mantentze lanak egitea.

2016an, zentro hauetan aldi baterako 21 erakusketa egin dira, eta haietara 5.417 lagun joan dira. Horrez gain bakoitzean erakusketa iraunkor bat dago.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

8. KONPROMISOA

Parkea mugikortasun iraunkorrerako eremu eta arkitekturako oztoporik gabe gisa sustatzea:

- Parkea beste udalerrri batzuetara zabaltzea, eta oinezkoen eta bizikleten tokiko sareekin lotzea, eskualdeko sare bat sortzeko.
- Mugikortasun murriztuko pertsonak aintzat hartuta, pasealekua eta aisiarako eremuak diseinatzea eta egokitzea.

Ibai Parkea Eguesibarren handitzeko prozesua hasi da (Iratiko natur bidea) eta bai Oltzako Zendea ere (Arazuri-Ororbia zatia). Bi UPSak aurkeztu dira aldaketak egiteko. Nafarroako Gobernuak Eguesibarkoa onartu du eta Arazuri-Ororbia zatikoa onartzeko dago.

Landabenen Iruñeko Ibai Parkearekin lotura egiteko lana esleitu da, Arazuriko kontzeju barrutia. Aurreikusita dago lana 2017ko maiatzean amaitzea.

Iruñerriko Ibai Parkea eta Iruñekoa bateratzeko azterlana egin da, eta bi parkeen kudeaketa bateratua arautuko duen hitzarmena izenpetzea gelditzen da bi aldeen artean.

Bereziki zaindu da sarbideak eta ibilbideak mugikortasun murriztuko pertsonentzat egokituta egotea.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

ERREKLAMAZIO, IRADOKIZUN ETA KEXEN KUDEAKETA

9. KONPROMISOA

Kasuen %85ean, gutxienez, pertsona partikularren eta tokiko erakundeen erreklamazioei, iradokizunei eta/edo kexei hamar eguneko epe maximoan erantzutea.

2016an, 42 eskaerari eman zaie artea, eta 30 ebatzi dira epearen barnean, hau da, %74. Horrenbestez, prozedura eta epea berrikusi eta aztertu beharko dira, eta, egokia bada, helburu errealagoak planteatu beharko dira.

Horrenbestez, konpromisoa ez betetzat jo behar da.

BI URTEAN BEHIN EGITEN DEN ASEBETETZE OROKORRAREN INKESTAREN ARABERA, PARKEKO ERABILTZAILA MODUAN EMAN DEN BALORAZIOA, ESKUALDEKO ZATIETAN, 2015EAN, 8,0KOA IZAN DA 10ETIK (2013AN, 7,7KOA IZAN ZEN, ETA, BERAZ, 2015EKOA HANDIAGO DA).